

kiñ zebillena, arkituko zala arrisku andian ezurak ausi eta baraurik gelditzeko.

Alkateak agindu zuan errian, moskortzen errazak ziranak ardo guchieta ur asko edateko.

Maisuak erakutsi zizkien ume guziei eskolan iru berso ayek ka-lean kantatzeko.

¿Eta Ardan-poto?

Ez dakit ill ala bizi dan.

UR-ZALE BATEK.



¡BOTA, BOTA!



—¿Aizak, aitu aldituk gabeko turmoyak? ustenikan bart bera zetoze la goyak.

—Ez diat bada kinkik ere nik sentitu.

—¡Arritzenak!

—Ez mutill, ez aizela arritu.

—¡Zér lua!

—¿Nik? esnatzen ez nak turmoyakiñ, ayek esnatzen dituk nere zurrungakiñ.

MARCELINO SOROA.

